

GENERO INDARKERIA EKONOMIKOA IKUSARAZTEKO ETA PREBENITZEKO GAKOAK:



GIDA LABUR BAT

Ixaxi Pérez Fernández
COMFIN, 2025eko azaroa

Egilea, Ixaxi Pérez Fernández
Diseinua, Patricia Núñez Pitto

Lege-gordailuaren zenbakia:
DL NA 2300-2025

Iruñean argitaratua 2025eko azaroan

Posta elektronikoa: comfinavarra@gmail.com

www.comfin.org



Coordinadora de Organizaciones
de Mujeres y/o Feministas por
la Igualdad en Navarra. **Nafarroa**
osoko Emakume Elkarten Federazio

DIRUZ LAGUNTZEN DU

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AURKEZPENA

Nafarroa osoko Emakume Elkarteen Federazioa(COMFIN) harro gaude Genero Indarkeria Ekonomikoa Ikusarazteko eta Prebenitzeko Gida aurkezteaz. Gida horren egilea, Ixaxi Pérez Fernández, gaian aditua da.

Gida hau emakumeei zein profesionaleri zuzendutako tresna gisa kokatu nahi dugu, indarkeria ikusezin baten aurkako funtsezko tresna gisa, eta horregatik, premia larri batetik sortu da: indarkeria patriarkalaren modu ezkutatu eta normalizatuenetako bat argitzea: genero indarkeria ekonomikoa. Gure helburua GIEren inguruan sensibilizatzea eta prebenitzea da. Nafarroan milaka emakumeren autonomia eta askatasuna mugatu eta murrizten baititu indarkeria mota da hau, eta asko kostatu egiten da hain lurperatuta eta gutxi ikusten den indarkeria identifikatzea.

Tresna estrategikoa da, eta prebentzioaren eta kontzientziazioaren aldeko lehen urratsa eman nahi du; izan ere, feministok ondo dakigunez, izendatzen ez dena ez da existitzen.

Azterlan eta txostenek errealitate suntsitzailea erakusten digute, independentzia ekonomikorik ezak emakumeak ahultasun-egoera sakonean jartzen ditu eta pobretzera eramaten ditu, beren buruari eta seme-alabei eutsi ezin izateraino.

COMFINek argitaratutako gida hau, emakumeentzat eta horiei arreta ematen dietenentzat da, baita erakundeentzat eta herritar guztientzat ere. Erantzun zuzena eta praktikoa eman nahi dio sistema patriarkalean emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunetik sortzen den errealitateari, indarkeria matxista guztiari bezala.

Horregatik, indarkeria ekonomikoa identifikatu, prebenitu eta artatzeko tresna praktikoa eta eskuragarria aurkezten dugu, baita sensibilizaziorako tresna ere.

Indarkeria ekonomikoa identifikatzean, GIEren adierazpenak zehazten ditugu: kontrol ekonomikoa, laneko sabotajea, ustiapen ekonomikoa, eta genero indarkeria ekonomikoaren dimentsio estrukturalak eta instituzionalak.

10 gako praktiko eskaintzen dizkiegu GIE sufritzen duten edo jasan dezaketen emakumeei, beren finantza- eta ekonomia-autonomia mantendu eta babestu ahal izan dezaten.

8 estrategia gehitu nahi dizkiegu, bai genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten elkarteentzat, bai baliabide desberdinetako profesionalentzat ere. Emakumeen autonomia ekonomikoaren sustapenean eraginkortasunez lan egin dezaten eta arreta integrala eta espezializatua eskaini ahal izan diezaieten.

Azkenik, Nafarroan eta Estatuan eskuragarri dauden funtsezko baliabideen zerrenda bat sartu dugu, bai biktimei arreta emateko, bai haien eskubideak bermatzeko. Azken finean, gida hau ez da soilik informazio-dokumentu bat, baizik eta independentziaren eta duintasunaren aldeko borroka kolektiborako tresna bat da, EKINTZARAKO DEIA.

COMFINetik, dokumentu hau irakurri, erabili eta zabaltzera gonbidatzen ditugu komunitatea, erakunde publikoak eta herritarrak oro har. Hezkuntza eta kontzientziazioa dira indarkeria matxista ahalbidetzen eta erreproduzitzen duten egiturak desagiteko lehen urratsa eta indartsuena.

Emakumeok, elkarrekin, genero indarkeria desagerraraz dezakegu, elkarrekin indartsuagoak garelako.

Yolanda Rodríguez Villegas,
COMFINeko lehendakaria.

GENERO INDARKERIA EKONOMIKOA, INDARKERIA IKUSEZINA

Gida honen bidez, herritarrak sentsibilizatu nahi dira, arreta gutxien eskaini zaion genero indarkeria mota bat ezagutaraziz, emakumeek jasaten duten indarkeriarik ezkutuenetako bati buruz, **GENERO INDARKERIA EKONOMIKOARI** buruz.

Gida honek indarkeria patriarkal horri aurrea hartzeko eta kontzientziatzeko lehen urratsa eman nahi du; izan ere, ezagutzen ez dena ez delako izendatzen, eta izendatzen ez dena, berriz, ez dela existitzen ematen duelako.




GENERO INDARKERIA EKONOMIKOAREN GANAKO HURBILPENA

Genero Indarkeria Ekonomikoa emakume baten egonkortasun ekonomikoari eragiten dioten ekintzak eta/edo ez-egiteak dira, eta emakumearen finantza-baliabideen eta erabaki ekonomikoen gaineko sarbidea mugatu egiten du, baita horien erabilera eta kontrola bikote baten esparruan ere. Gizon batek bikotekideari edo bikotekide ohiari baliabide ekonomikoak ukatzeko etengabeko mehatxua ere bada.

Genero Indarkeria Ekonomikoaren eragina sakona da; izan ere, independentzia ekonomikoak aukeratzeko funtsezko boterea ematen du, eta independentzia hori ez izateak emakumeak mendekotasun eta kalteberatasun egoeran jartzen ditu, beren askatasuna eta autonomia mugatuz, beren buruari ezin eutsiz, eta, hala badagokio, seme-alabei ere ondorioak eraginez. Horrek ondorio larriak ditu beren osasun fisiko eta psikologikoan eta maila sozialean ere.

Gainera, indarkeria-mota horrek sistema patriarkala sostengatzen eta erreproduzitzen du, genero indarkeria mota guztien oinarrian dauden nagusitasun- eta botere-harremanekin.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren 2019ko Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren arabera, 16 urtetik gorako emakumeen % 11,5ek (2.350.684) genero indarkeria ekonomikoa jasan dute noizbait.



Nafarroan, 2019tik 2023ra bitartean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeek egindako arreta guztietatik, artatutako emakumeen % 19k genero indarkeria ekonomikoa jasan dute.

Ehuneko % 33,35eraino igotzen da 2024an.

Nafarroan, 2019tik 2023ra bitartean, Larrialdietako Zentroan (larrialdiko eta premiako kasuetarako harrera-zentroa) artatutako emakume guztien % 11,24k adierazi du genero indarkeria ekonomikoa jasan duela.

Iruñean, 2019 eta 2023 bitartean, Emakumearen Udal Arreta Zerbitzuak egindako arreta guztietatik, emakumeen % 11,23k adierazi du genero indarkeria ekonomikoa jasan duela.

Ehunekoa % 15eraino igotzen da 2024an.



Genero indarkeria ekonomikoak barne har ditzake diruaren erabilera kontrolatzea, baliabideak ukatzea, behartutako zorpetzea edo kalte ekonomikoa eragiten duen beste edozein ekintza. Berdin agertzen da bikote-harremanean edo -bizikidetzan, bai eta ondoren ere, eta lehen aldiz ager daiteke edo areagotu, lehendik bazegoen, banantzearekin eta dibortzioarekin.

Beste indarkeria matxista mota batzuekin batera agertzen ohi da, kontrol ekonomikoaren, ustiapen ekonomikoaren eta lan-sabotaiaren bidez. Indarkeria hori erabiltzeko aitortutako hiru modu horiei genero indarkeria ekonomiko instituzionala eta sistematikoki emakume guztiei eragiten dien egiturazko testuinguru patriarkala gehitu behar zaizkie. Beste kategoria batzuek larriagotu egiten dute, hala nola, klaseak, jatorriak, etnizitateak, administrazio-egoerak, adinak edo desgaitasunak.

GENERO INDARKERIA EKONOMIKOA LEGE ETA ARAUETAN

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, ez du genero indarkeria ekonomikoa onartzen genero indarkeriaren adierazpenen artean. Ondorioz, indarkeria mota hori jasaten duten emakumeak ez dira biktima gisa aitortzen, indarkeria ekonomikoarekin batera onartutako bestelako indarkeria matxistarik ez badago.

Beraz, ez da babes-neurririk garatu, ezta beharrezko baliabiderik ere indarkeria horren esparruan prebenitzeko, detektatzeko, zehazteko eta esku hartzeko, nahiz eta 2014an Espainiak Istanbulgo Hitzarmena (2011) berretsi zuen (bete beharreko Europako araudia, genero indarkeria ekonomikoa aintzat hartuta, eta 3. artikuluan honako hau zehazten duena):

"emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketatzat eta emakumeen aurkako bereizkeria-modutzat hartu beharko da, eta generoan oinarritutako indarkeria guztiak izendatuko ditu, baldin eta emakumeei kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak eragiten badizkiete edo ekar badiezazkiekete, baita ekintza horiek egiteko mehatxuak, derrigortzeak edo askatasunaz arbitrarioki gabetzeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan".

Hala ere, adierazi behar da, sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa 2022an indarrean sartzean (Soilik Bai Legea), aldatu egiten dela Genero Indarkeriaren aurrean Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko Legearen 19. xedapen gehigarria. Horrek aitortzen du, indarkeria ekonomikoaren aurkako babesaren esparruan, Estatuak bermatuko duela adingabeko seme-alabei aitortutako eta ordaindu gabeko elikagaiak ordainduko zaizkiela.

2025eko otsailaren 10ean, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itun berriak genero indarkeria ekonomikoa aitortzea aurreikusten duela iragarri zen. 2025eko otsailaren 17an Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren neurri berriak onartu ziren, eta otsailaren 26an Kongresuak itun politikoa onartu zuen, itun horren lege-garapenaren kontura.

Nafarroan, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak 3.3 artikuluan honela definitzen du genero indarkeria ekonomikoa: "emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko edo psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikote-bizikidetzaren eremuan baliabide partekatutak erabiltzeko diskriminazioa".


Hala ere, Foru Legean indarkeria mota hori aitortu izanak ez du berekin ekarri bere eskumenen esparruan politika publikoak garatzea.

Gida honen egileak eta COMFINek genero indarkeria ekonomikoa aitortzeko eta prebenitzeko egin zuten eragin politikoko prozesu baten ondoren, 2025eko maiatzean mozio bat onartu zen Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzitzaien:

- Foru Komunitateko genero indarkeria ekonomikoari buruzko azterlan bat egitea,
- irisgarritasuna sustatzeko, datuak homogeneizatzeko, biltzeko eta bateratzeko ahaleaginean sakontzea.
- indarkeria ekonomikoaren errealitatea genero-indarkeriaren arloko prebentzio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-politiketan txertatzen sakontzea, bai eta arlo horretan aritzen diren erakunde-aliantzetan ere.



Mozio hori idatzi eta onartu zen “Mantenu-pentsioa nahita ez ordaintzearen errealitateari eta Pentsioak Ez Ordaintzeko Aurrerakinak Bermatzeko Funtsa indarkeria ekonomikoaren aurkako babesaren esparruan aldatzeko buruzko azterketa txostena” aurkeztu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordearekin 2025eko martxoaren 26an Ixaxi Pérez Fernándezek eta COMFINeko kideek egindako lan-saioan. ([webgunerako esteka, lan-saioarekin eta txostenarekin](#)).

Ixaxi Pérez Fernández

TXOSTEN BETERAZLEA

MANTENU-PENSIOA NAHITA EZ ORDAINTEAREN ERREALITATEARI BURUZKO AZTERKETA.

GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BABES EKONOMIKOAREN ESPARRUAN PENSIOAK EZ ORDAINTEKO AURRERAKINAK BERMATZEKO FUNTSA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

1. SARRERA.

Genero-ikuspegitik, Elkagai Pentsioaren Nahita Ez Ordaintzearen inguruko errealitatea aztertzen da, bai eta seme-alabei Elkagaiak Ordaintzeko Aurrerakinak Bermatzeko Funtsa (FOGAPA) ere. Funtsa aldatzea proposatzen da, Genero Indarkeria Ekonomikoaren aurkako babes neurri gisa, eta Nafarroak laguntza-lerro propio bat sortzeko aukera, Nafarroako adingabeei FOGAPAK egiten dizkien kontzesio urrien aurrean, erreparazio integrala aintzat hartuta.

2. GENERO INDARKERIA EKONOMIKOA.


Genero Indarkeria Ekonomikoa gutxien ikeritu den indarkerietako bat da, eta orain arte ez da kontuan hartu. Hori dela eta, zaila izan da hura definitzea.

Jakina da independentzia ekonomikoak aukeratzeko funtseko boterea ematen duela, eta botere hori ez izateak pertsonen askatasuna eta autonomiaren garapena mugatzen dituela.

Genero Indarkeria Ekonomikoa kalte ekonomikoa eragiten duen edo emakumearen egonkortasun ekonomikoari eragin nahi dion edozein ekintza edo ez-egiteri dagokio, ballabide finantzarioen eta erabaki ekonomikoen gaineko sarrera eta kontrola murriztuz. Horrek emakumea erasotzailearekiko mendekotasun finantzarioari eusten dio eta abusu-ziklo batetik ihes egitea zailtzen du. Botere ekonomikoa kalte egiteko erabiltzen duen indarkeria-mota hori — independentzia eta emakumeak bere buruari, seme-alabei eta bizimoduari eusteko duen gaitasuna murriztuz— bikote-harremanean zehar edo ondoren gerta daiteke, bakarrik edo beste indarkeria-mota batzuekin konbinatuta, eta bikoteak esplotazio ekonomikoarekin duen harremana amaitutakoan agertzen da, besteak beste, elkagaien pentsioa ez ordaintzearen bidez, nahita. Horri gehitzen zaio indarkeria Instituzionala eta indarkeria estrukturalaren testuingurua, emakume gutxiei sistematikoki eragiten diena eta bereziki lan merkatuan islatzen dena.

LOVGik ez du Genero Indarkeria Ekonomikoa aitortzen, Espainiak 2014an berretsi zuen

**GENERO
INDARKERIA
EKONOMIKO
MOTAK**



KONTROL EKONOMIKOA

Kontrol ekonomikoa bizikidetzan nabarmenagoa da. Erasotzaileak gainbegiratu eta mugatu egiten du emakumeak baliabideetarako duen sarbidea, gastuak kontrolatzen ditu eta bikoteari galdetu gabe erabaki ekonomikoak hartzen ditu. Kontrol ekonomikoaren biktimek egoera hauei egin behar diete aurre:

- Gastu bat egiteko baimena eskatzea edo azalpenak ematea, emakumearentzat edo familiarentzat, baita oinarrizko beharrei aurre egiteko gastuak ere, hala nola, garraioa, higiene-produktuak edo janaria.
- Egiten diren gastuak justifikatzea. Erasotzaileak erosketatiketikak berrikusi ohi ditu.
- Erasotzaileak "alferrikakotzat" jotzen dituen gastu batzuk egiteko debekua jasatea, baita familiaren ongizaterako edo nork bere burua zaintzeko oinarrizkoak badira ere.
- Erasotzaileak, emakumeari galdetu gabe, erosketa handiei buruz erabakitzearen ondorioak emakumearen gain hartzea, hala nola auto bat bezalako ondasunak edo ondasun higiezinak erostea edo saltzea.

KONTROL EKONOMIKOA

- Erasotzaileak bankuko kontuak, aseguruak edo maileguak aldatzea erabakitzea emakumeari informaziorik edo iritzirik eskatu gabe, ondorioak emakumearengan eraginez.
- Bateratutako banku-kontu bat izatea, baina ez jakitea emakumea titularra edo baimendutako xedatzailea den.
- Familia-gastuak ez ezagutzea (hipoteka, alokairua, hornidurak, ordainagiriak, etab.).
- Dokumentu ekonomiko garrantzitsuak (etxearen erosketa-eskriturak, hipotekarenak, alokairu-kontratuarenak, banku-kontuarenak, etab.) non dauden ez jakitea.
- Bikotekidearen soldata ez ezagutzea.

USTIAPEN EKONOMIKOA

Esplotazio ekonomikoan, erasotzaileak emakumeak bere gain hartu beharreko zorrak sortzen ditu, edo biktimak dituen baliabide ekonomikoez, lanez edo ondasunez baliatzen da. Biktimak honako egoera hauei egin behar die aurre:

- Emakumeak bere soldata osoa erasotzaileari eman behar izana, hari buruz erabakitzen utzi gabe, edo emakumearen soldata osoa kudeatzea.
- Erasotzaileak dirua ateratzen du emakumearen banku-kontutik, kontsultatu gabe.
- Erasotzaileak maileguak eskatzen ditu, txartelak eskatzen ditu edo emakumearen izenean bermeak sinatzen ditu berarentzat. Gastuak edo inbertsioak ere bere izenean finantzaratzen dizkio, zorra biktimari utziz.
- Erasotzaileak familia-enpresan lan eginarazten dio emakumeari, eta ez du ez soldatarik ez lan-eskubiderik jasotzen.

USTIAPEN EKONOMIKOA

- Emakumea ez da agertzen negozioaren lege-paperetan, nahiz eta horretan aktiboki aritu.
- Erasotzailea seme-alabentzako mantenu-pentsioaren ordainketan atzeratu egiten da edo ez du ordaintzen.
- Seme-alaben aparteko gastuak ordaintzerakoan atzeratu edo ez ordaindu.
- Emakumea seme-alabekin bizi den etxearen hipoteka edo alokairua ordaintzeari uzten dio edo atzeratu egiten da.
- Ez du konpentsazio-pentsioa ordaintzen.
- Pentsioaren zenbatekoa murrizteko diru-sarrerak edo ondasunak ezkututzen ditu.
- Ez du seme-alabentzako bisita-erregimena betetzen, eta ez du ekonomikoki konpentsatzen ez-betetze horrek dakarren gastuagatik.

LANEKO EDOTA FORMAKUNTZAKO SABOTAIA

Laneko sabotaiak esan nahi du erasotzaileak emakumearen enplegua oztopatzen duela, lan egitera joatea eragotziz, kaleratzea eraginez edo bere lana oztopatuz. Biktimaren prestakuntzara eta hezkuntzara ere zabal daiteke, biktima galaraziz edo blokeatuz. Horrek guztiak honakoa esan nahi du:

- Lanik ez egitea proposatu, iradoki eta baita lan egitea debekatzea ere. "Nire soldatarekin nahikoa da", "ama on batek ez du lanik egiten", "haurrak etxean behar zaitu" eta antzeko esaldiak erabiltzea.
- Emakumeak lan-eskaintzak ez onartzea edo hartzeko animoak kentzea.
- Lan-elkarrizketa bat egin aurretik eztabaidak sortzea berandu iristeko, elkarrizketa egunean seme-alabez ez arduratzea edo seme-alabak ez zaintzea, emakumea joan ez dadin.

LANEKO EDOTA FORMAKUNTZAKO SABOTAIA

- Lanaldian behin eta berriz deitzea, emakumearen lana eteteko.
- Gatazkak sortzea ikaskideekin, buruekin, baita bere laneko langileen aurrean emakumeari izen ona galtzea ere.
- Emakumeak ikasteko edo profesionalki trebatzeko trabak jartzea hau desanimatuz edo debekuaren bidez.
- Prestakuntza-denborak oztopatzea (materialak ezkutatzea, etengabe etetea, etab.), edo etxeaz edo seme-alabez ez arduratzea, emakumeak ikas ez dezan.

GENERO INDARKERIA EKONOMIKO INSTITUZIONALA

Indarkeria mota horrek erakundeen jardunari edo jarduera ezari egiten dio erreferentzia, emakumeek eskubide ekonomikoak izatea oztopatzen edo eragozten baitu. Baliabideak eskuratzeko diskriminazioak honakoak barnebiltzen ditu; izapideak edo ebazpenak atzeratzea, baliabide ekonomikoak eskuratzeko eskatzen den dokumentazio guztia biltzeko zailtasuna eta emakumeen egonkortasun ekonomiko eta emozionalerako prozesu judizial luze eta konplexuak.

Indarkeria horren adierazpenak dira:

- Pobreziaren edo bazterkeriaren arriskua prebenitzeko dirulaguntza ekonomikoak jasotzeko atzerapena.
- Biktimei eskatutako dokumentazioa aurkezteko prozesuan dagoen zailtasuna.
- Dirulaguntzak lortzeko izapide burokratiko ugari eta bihurriak.

GENERO INDARKERIA EKONOMIKO INSTITUZIONALA

- Erakundeek erantzun desegokia edo nahikoa ez izatea genero indarkeriaren biktima diren emakumeek dirulaguntzak jaso ahal izateko, hala nola, Elikagaien Pentsioa Aurreratzeko Berme Funtsera (FOGAPA) sartzeko baldintzen mugak.
- Zerbitzuen koordinazio ezak dakarren prozeduren errepikapena eta dokumentazioa bikoiztea.
- Indarkeria-mota horren ardura duten zerbitzuetako teknikarien gaitasunik eza.
- Landa-eremuetan estaldura instituzionalik ez izatea, dirulaguntza ekonomikoak jaso ahal izateko gertuko arreta-punturik edo garraio publikorik ez dagoelako.

Ezinbestekoa da indarkeria mota hori kontuan izatea, zuzenean eragiten baitu emakumeen eta haien mendekoen txirotzean, erreklamazio-, babes- eta erantzun instituzionaleko prozesuetan.



EGITURAZKO GENERO INDARKERIA EKONOMIKOA

Genero indarkeria ekonomikoak emakume guztiei sistematikoki eragiten dien egiturazko testuingurua du, eta, lehen adierazi dugun bezala, areagotu egiten da klase, jatorri, etnizitate, administrazio-egoera, adin eta desgaitasunen osagaiengatik.

Gizarte patriarkal batean bizi gara, eta emakumeek honako hauei egin behar diete aurre: okupazio-segregazioei, soldata-arrakalei, kontratazio partzial handiagoari, emakumeen langabeziari, lan informal oso feminizatuari, kristalezko sabaiei (emakumeek goikarguak betetzeko dituzten oztopoak) eta zoru itsaskorrei (emakumeek lanpostu prekarioenak, behin-behinekotasun handiak dituztenak edo ordainsari baxuagokoak dituztenak uzteko dituzten zailtasunak).



Gainera, gure gizartean sexuagatik zapalkuntza, diskriminazio eta desberdintasun etengabeek eragina dute, emakumeek eta gizonek beren bizitza baldintzatzen duten prozesu ekonomiko, sozial eta politikoetan parte hartzen duten moduan. Lanaren sexu-banaketaren aurrean gaude, arlo publikoaren eta pribatuaren esfera banatzen baita, sexu bakoitza hainbat eremutan mugatuz: gizonak arlo publikoan, produkzioari eusten, eta emakumeak arlo pribatuan, ugalketaren eremuan.

Gizarte patriarkalean, zainketek ez dute oraindik behar duten posizio nagusia betetzen, eremu pribatuan kokatzen baitituzte. Zaintzek ezaugarri dute emakumeari lotuta egotea eta ordaindu gabekoak izatea. Horrek genero-ekitate eza dakar denboraren banaketan, jardueretan eta konpentsazioetan. Horrek guztiak esan nahi du emakume askok ez dutela etxetik kanpo lan egiteko asmorik, edo lan-merkatuan baldintza eskasagoetan sartu behar direla enplegua eta zaintzak bateragarri egin ahal izateko.



Beraz, argi dago lan-merkatuan emakumeen okupazioak gora egin badu ere, horrek ez duela berdintasun handiagorik ekarri. Izan ere, emakumeek jasaten duten egiturazko zapalkuntza da marjinazioaren eta pobreziaren kausarik sakonena. Indarkeria zuzenean lotuta dago independentzia eta autonomia ezarekin.

Lan-merkatua, sistema kapitalistan sustraitzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ekonomikoaren funtsezko tresnetako bat da, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak sortzen dituzten rolak errepikatzen baitira.




10

EMAKUMEENTZAKO GAKOAK



**bikote-
harremanetan
genero indarkeria
prebenitzeko**

- 1 Diru-sarrera propioen hornitzailea izatea eta diru-sarrera horiek autokudeatzea. Ekonomikoki beste pertsona baten mende egotea saihestea.
- 2 Nomina edo jasotzen diren dirulaguntzak banku-kontu propioan izatea, aurrezki propioak izatea. Bikotearen soldatak ordaintzeko kontu komun bat izanez gero, titulartasunak bateratua izan behar du, eta kontuko dirua libreki erabili behar da.
- 3 Eguneroko bizitzarekin lotutako dokumentuen edukia ezagutzea eta gastu guztietarako sarbidea izatea (banku-kontuak, aseguruak, hipoteka, alokairua, hornidurak (ura, argia eta gasa, telefonoa eta internet, lotutako zergak, hala nola ondasun higiezinaren gaineko zerga).
- 4 Alokairua edo etxebizitzaren hipoteka bi pertsonen izenean jartzea.



- 5 Ulertzen ez diren dokumentuak ez sinatzea, sinatu aurretik aholkularitza bilatzea.
- 6 Funtsezkoa da jakitea Nafarroan ezkontzen denean, besterik adostu ezean, ezkontzako erregimen ekonomikoa konkisten erregimena dela, eta horrek esan nahi du galerak eta zorrak komunak direla, baita irabaziak ere. Ez da halakorik gertatzen dohaintza edo jarauspenen bidez eskuratzen diren ondasunen kasuan, ez eta alde zuzeneko eskuratutakoen kasuan ere.
- 7 Bikotearekin finantzei buruz argi eta garbi hitz egitea harremanaren hasieratik. Emakumeak diruaz ez hitz egiteko sozializatuta daude; hala ere, funtsezkoa da ekarpenei, partekatutako gastuei eta aurrezkiei buruzko akordio argiak modu orekatuan egitea, emakumeek lan-egoera prekarioagoak baitituzte, eta, horregatik, soldata baxuagoak.
- 8 Lanaldi-murrizketei buruzko akordioak lortzea, senideak zaintzeko denean, eta zaintza horiek familiaren ekarpen gisa izango duten balio ekonomikoa adostea.
- 9 Banantze edo dibortzio kasuetan, ekonomia eta finantza gaiari buruz informatzea alde zuzeneko aurretik.
- 10 Beti konfidantzazko pertsonen inguratzea, eta inoiz ez isolatzea. Laguntza behar izanez gero, emakumeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeetara jotzea.

8 ELKARTEENTZAKO ETA PROFESIONALENT ZAKO GAKOAK:



**GENERO
INDARKERIA
EKONOMIKOAREN
PREBENTZIOA**

- 1 Emakumeen enplegarritasuna ahalbidetzen eta errazten duten prestakuntza-programa homologatuak garatzea.
- 2 Independentziarako eta autonomia ekonomikorako, ezinbestekoa da lan-eskubideak ezagutzea, bai soldatakoak, bai bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzekoak, baldintza duinetan.
- 3 Emakumeen autonomia ekonomikoa lehentasunez lantzea.
- 4 Finantza-kudeaketa egoki bat lantzea.
- 5 Emakumeei independentzia ekonomikoko estrategia bat eraikitzen laguntzea, arrisku gehiagoren eraginpean jarri gabe (kontu bat beren izenean irekitzea, kopuru txikiak aurrezteak, diru-sarrera propioak modu seguruan sustatzea, etab.).
- 6 Aurreko ataleko aholkuak zabaltzea.
- 7 Ezinbestekoa da genero indarkeria ekonomikoa nola gauzatzen den jakitea, identifikatu ahal izateko eta arreta integrala eman ahal izateko.
- 8 Baliabideak, laguntza ekonomikoak edo subsidioak ezagutzea, behar dituzten emakumeei modu diskretuan helarazteko eta laguntza profesionala emateko.

**GENERO
INDARKERIA
EKONOMIKOARI
AURRE EGITEKO
BALIABIDEAK**



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEA

Talde horiek laguntza soziala, psikologikoa eta legala eskaintzen dute, eta, horrez gain, aholkularitza eta laguntza ematen dute berreskuratze-prozesuan, bai eta seme-alabentzako arreta ere.

IRUÑERRIA, IPAR-MENDEBALDEA ETA IPAR-EKIALDEA



Bidaburua kalea, 5. 31610 Atarrabia



Telefonogunea: 848 46 38 50 / Zentroa: 848 46 38 60



eaivcomarcaynorte@fundaciongizain.es

TUTERA



Gizarte Zerbitzuen Zentroa. Gaiarre kalea, 8. Tutera



948 40 36 65



eaivtudela@fundaciongizain.es

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEA

LIZARRA

📍 Antso Indartsua kalea, 6, behea. Lizarra

☎ 948 55 36 20

✉ eaivestella@fundaciongizain.es

TAFALLA

📍 Martínez Espronceda kalea, 1-3, behea. Tafalla

☎ 848 46 30 90

✉ eaivtafalla@fundaciongizain.es



IRUÑEKO EMAKUMEENTZAKO UDAL ARRETA ZERBITZUA

Iruñeko emakumeei arreta integrala eta pertsonalizatua emateko zerbitzu publikoa da, eta honako egoera hauetan daude:

- Genero-indarkeria edo hura jasateko arriskuan.
- Gatazka-maila handiko bikote-harremanak haustea.
- Dibortzio-prozesuak eta seme-alabekiko harremanak legez arautzeko prozesuak.
- Prostituzio-sistema uzteko prozesuak.

Aholkularitza juridikoa eta esku-hartze sozial eta psikologikoa eskaintzen ditu.

📍 Marcelo Zelaieta etorbidea 51, beheko solairua. 31014 Iruña (Ikatz eraikina)

☎ 948 420 940

✉ SMAM@pamplona.es



BERDINTASUN UDAL ZERBITZUAK

Udaletako edo udalaz gaindiko Berdintasun Zerbitzu batzuek doako aholkularitza juridiko eta psikologikoa dute emakumeentzat. Zure udaleko Berdintasun Arloarekin, Mankomunitatearekin edo Tokiko Ekintza Taldearekin harremanetan jarri informazioa jasotzeko.

ELIKAGAIEN PENTSIOEN AURRERAKINA BERMATZEKO FUNTSA (FOGAPA)

Estatuko funts honen xedea da gurasoek seme-alaba adingabeei zor dizkieten mantenu-pentsioen ordainketak bermatzea, betebehar hori betetzen ez bada.

Hala ere, Estatuak aurrerakin batzuk ematen ditu, aldi baterako estaldura ekonomiko eta subjektu hartzaile oso mugatuekin, adina, jatorria eta gehieneko familia-diru-sarreraren muga direla eta.

2008an funtsa sortu zenetik 2024ra arte, 265 prestazio baino ez zaizkie eman Nafarroako neskei (123) eta mutilei (142), eskaeren % 58,11. Hau da, Funtsa martxan jarri zenetik egindako emakida nazional guztien %0,99.

Informazio gehiago:

KLASE PASIBOEN ATARIA

Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtsaren Aurrerakinen Ataria.

Errekurtso horren helburua da seme-alaba adingabeei mantenu aitortuak eta ordaindu gabeak ordainduko zaizkiela bermatzea. Mantenu horiek judizialki onartutako hitzarmenean edo banantze, dibortzio, ezkontzaren deuseztasun-deklarazio, filiazio edo mantenu-prozesuetan ezarri dira, eta aurrerakin izaera izango duen zenbateko bat ordainduko da.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Avilés, L. (2022). Indarkeia ekonomikoa eta proaktibitate judiziala. Ideas aldizkaria. <https://revistaidees.cat/es/la-violencia-economica-y-la-proactividad-judicial/>
- Berdintasun Ministerioa. (2020). Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko 2019ko makroinkestak. Genero indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/macroencuesta2015/macroencuesta2019/>
- COMFIN (2025) Mantenu-pentsioa nahita ez ordaintzearen errealitateari buruzko azterketa eta Pentsioak ez ordaintzeko Aurrerakinak Bermatzeko Funtza aldatzeko proposamena, indarkeria ekonomikoaren aurkako babesaren esparruan
- Domínguez, P. (2011). Pentsioak ez ordaintzea indarkeria ekonomiko gisa. M.A. Zurilla y P. Domínguez (coord.), Emakumeen aurkako indarkeria. Ikuspegi juridikoa, 111-130. Oviedo: Septem Edizioak.
- ECOVIO. (2020). Indarkeria ekonomikoa: aztertu gabeko genero-indarkeriako gai batean bideak irekiz, emakumeen eta haurren oinarritzko eskubideak bermatzeko. Eraitzen txostena. <https://economic-genderviolence.eu/es/>
- EIN <https://www.ine.es/>
- Gizarteratze, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa (2025) FOGAPA
- Isadora Duncan Fundazioa (2024). Genero-indarkeriaren prebentzioa eta sentsibilizazioa <https://prevencionviolencia.org/>
- NABI (2025). Erakundeen arteko III. Akordioaren urteko txostenak <https://www.igualdadnavarra.es/es/acuerdo-interinstitucional>
- Nafarroako Parlamentua (2025) Nafarroako Parlamentuaren Aldizkaria, 25 zk., 2025eko maiatzaren 13koa <https://parlamentodenavarra.es/sites/default/files/diarios-sesiones/PRES11025.pdf>
- Sánchez, I. (2019). Indarkeria ekonomikoa femeninoan. Gizarte zientzien mintegi iraunkorra, 14. 2019/5eko Lan Dokumentua https://www.uclm.es/-/media/Files/C01-Centros/cu-sociales/doc_web_CCSScu/SEMINARIO-PERMANENTE-DE-CIENCIAS-SOCIALES/Doc-2019/5-I-Snchez.ashx?la=es

EGILEA:
Ixaxi Pérez Fernández

Nafarroa osoko Emakume Elkarteen Federazioa

Iruñean, 2025eko azaroan.

✉ comfinavarra@gmail.com

www.comfin.org



Coordinadora de Organizaciones
de Mujeres y/o Feministas por
la Igualdad en Navarra. **Nafarroa**
osoko Emakume Elkarteen Federazio



Meninas
2024



DIRUZ LAGUNTZEN DU

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

